

Otsailean asteburuetan irekita egongo da Loiolako liburutegia

Liburutegiko zerbitzua zabalduz unibertsitateko ikasleek egindako eskariari erantzun nahi diote

N. Uranga

Bihartik hasita eta azterketa garaian, Loiolako liburutegia asteburuetan zabalik izango da ikasleentzako. Hau da, otsailean, larunbatetan eta igandetan ireki egingo dute asteguneko ordutegiarekin: goizez 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 15:30etik 19:00etara. Unibertsitateko ikasleek egindako eskariari erantzun nahi diote era horretan.

Hitzarmen baten emaitza

Unibertsitateko ikasle asko aspalditik ari ziren asteburuetan ere liburutegia irekitzeko eskatzen, azterketa garaian ikasteko tokirik ez dutela eta. Eskari horri erantzuteko asmoarekin, Azpeitiko alkate Julian Eizmendi Loiolako erretoretzarekin bildu da eta asteburuetan liburutegia irekitzeko akordioa egin dute.

Bihar hasiko dira ikasleei zuzendutako zerbitzua eskaintzen Loiolako liburutegian, eta azterketa garaietara mugatuko dute. Behin otsaila pasatutakoan, ohiko ordutegian zabalduko dute Loiolako liburutegia. Udako azterketa garaian ere asteburuetan liburutegia zabaltzeko asmoa dute.